

EAK ere osoko zuzenketa aurkeztuko dio Udal aurrekontu proiektuari

Kronika - Erredakzioa 2008-02-13 01:00



Eusko Alkartasunako Udal taldeak osoko zuzenketa aurkeztuko dio Gobernu Taldeak aurkeztu duen aurrekontu proiektuari, proposamena aztertu ondoren, «dezepzioa» hartu dutelako. Iñaki Arratibel Olaziregi Udal taldeburuak azpimarratu du, EAE-ANVko udal gobernuak 2007ko aurrekontua gestionatzen ez duela «minutu bat bera ere pasa», eta paralizatu egin duela. «Erabaki horrek badu logika politikoa, ez ziren beren aurrekontuak eta beraz ez daude politikoki behartuak gauzatzera. Arazoa da instituzionalki dituzten betebeharrak ere alde batera utzi dituztela, eta hau oso larria da».

Gastuaren igoera

Eaak azpimarratu duenez, «pertsonaleko politika arbitrarioa eta gastua kontrolatzeko interesik eza» erakusten du aurrekontu proiektuak eta %7,51ko igoera «justifika ezina eta sostengaezina» iruditzen zaio. Politika hau erabilia, «udalak behar dituen hobekuntzak egiteko» aurrekontua hipotekatua egongo dela azpimarratu du. Horrez gain, Udal langileak kokatzen dituen organigramari dagokioenean EAK dio, «Udal gehiengo politikoari Alkatetzak azaldu dion mespretxua eta aintzakotzat ez hartu izana» nabarmentzen direla, gainerako alderdiak aurka egonda hartutako erabakia delako.

Inbertsioen atala

Iñaki Arratibelek nabarmendu duenez, aurrekontu proiektuan harrigarriena, inbertsioen atala da «6.091.263 euro, 2007an baino %66,16 gehiago. Eta honi Kirol Patronatuko inbertsioa erantsen badiogu -igerilekuak haunditzearena- kopurua 8.493.159 eurokoa da. Sentsazioa da, diru faltagatik 2007ko aurrekontuen paralizazioaren ondoren, ANVk erabaki duela erruki gabe gastatzen hasteko garaia dela, anbizio handiko inbertsio politika bati aurre eginda».

Zorpetzea

Zorpetzeari dagokionean, Udal alderdiak adierazi du 7.069.000 euroko kreditua eskatzeko asmoa azaldu duela Gobernu taldeak «eta hau karga bat izango da datozen urteetarako». Interes eta kapitalaren amortizazioan, urtean 1.479.943 euro ordaindu beharko direla azpimarratu du «gaur arte ordaintzen ari garenaren bikoitza». Horrek, datozen urteetan kredituak eskatzeko ahalmena mugatuko duela uste du EAK «baita Gobernu Taldeari geratzen zaizkion legealdi urteetan ere». Horren gainean dio, espero dutela legealdi amaierako egoera finantziarioa, hasierakoa bezain ona edo hobea izatea, «hernaniar guztiak eskertuko duguna, dudarik gabe». Kreditu eskaera honek 2007ko aurrekontuetan bildutako proiektuak «paralizatzea» ez duela justifikatzen adierazi du EAK: «Etxeberri berrurbanitzea, Gudarien plaza berritzea, eta abar. Eta larriagoa dena, ez ditu betetzen konpromezu instituzionalak, Etxeberriko hitzarmena kasu. ANVk autoritatea eta autoritarismoa nahasten ditu, liderazgoa eta kazikismoa». EAren babesik ez dutela aurkituko argi utzi du Iñaki Arratibelek eta Alkatetzari beste aurrekontu proiektu bat aurkezteko eskatuko dio «landuagoa eta herriaren benetako beharrei erantzungo diena».